

AURKIBIDEA

Sagardoaren Graziya	3
El Txotx	4
La sidra	8
La sidra, fresca	11
La liturgia de la sidra	12
La revolución del acero inoxidable	15
Lista de sidrerías	18
Las sidrerías	21
La manzana	23
La materia prima	24
El bacalao	28
La cara oculta del txotx	30

✓ **Textos, diseño y maquetación: INFOTRES**

✓ **Fotos: PAMAN Y UNCITI**

✓ **Infografía: DEIA**

✓ **Gestión Publicitaria: INFOTRES**

«SAGARDOAREN GRAZIYA»

Bertso eta poesi gai ere izan da sagardoa.

Fernan Gonzalezen poeman agertzen da aipamenik zaharrenetakoa. San Pedro de Arlanzako fraileak gaztelaniaz idatzia 1240 ingurukoa da. Lasturko Andre Milia zenaren hiletetan bere ahizpak kantatua XV. mendekoa. Baita Domejon Gonzalez de Andiarena ere.

«Donostiako hiru damatxo» kantuan agertzen den «Donnostenyako Gaztelupeko sagarduaren gozua» aipamena XVI. mende ingurukoa da. Iztueta zaldibiarrek ere 25 bertso eskaini zizkion sagardoari XVIII. mendean.

Baina Tolosako Ramon eta Pepe Artola, aita-semeen bertsoak dira ezagunenak. «Sagardoaren graziya» izenez argitaratu zituen Ramon Artolak 1860an bertso hauek

- | | |
|--|---|
| 1) Bedeinkatua izan dedilla sagardoaren graziya, bai eta ere kupira gabe edaten duben guziya; edari onek gizon askori ematen dio biziya, au edan gabe egotia da neretzat penitentziya. | 2) Lenengo sartu tabernan eta ateratzen naiz azkena, egun guzian zurrutian da etzait betetzen barrena; au da edari maitagarri bat arras piztutzen naubena, Joxepa Karmen biotzekoa bete amabigarrena. |
|--|---|

Ez dira makalak, bere zahartzaroan, sagardoari osatutako beste lau hauek ere:

- | | |
|--|--|
| 1) Urreztuba ikusten zaio koloria, balsamu bat da berriz bere saborea; txinpartak darizkala edari guria, penak iltzeko txanpain bañan da obia. | 2) Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezun illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira. |
| 3) O! edari maitea, oh! edari ona, kulpikan gabe preso kupelan egona; orain libratzen zera, gure zoriona, atoz, pozturik deika daukazu gizona. | 4) Zu zera lorientzat intza dan modura, gizonaren pozgarri sortuba mundura; edaten zaitubena zu, zeruko ura, igotzen dezu mundu ontako zerura. |

Bere seme, Pepe Artola, olerkari sakonagoa zen, aitari ezertxo kendu gabe. «Sagarra eta Sagardua» izenarekin egindako bi bertso eder hauek jarriko ditugu hemen:

- | | |
|---|---|
| 1) Lore ederra mundua zera ostu tartian etortzen, arbol-adarrak zintzilik zaitu gustora ongi azitzen, denborarekin gorputza zaizu txit borobilla gelditzen aize eguski eta andiyak zaituztelako mantentzen. | 2) Ai! zenen gauza ederra eta garbiya zeran azaltzen, euskaldun denek zure ganuntza pozkidaz gerade biltzen, bakoitzak bere aldetik milla esker dizkitzu ematen; ta gerora zure zumo gozoa gustora degu edaten. |
|---|---|